

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak itsasoko fauna babesteko arazoari erantzuten dio, hondakin kaltegarriak identifikatu eta kentzeko diseinatutako gure lehen proiektuaren bidez. Helburua da itsas ingurunea garbiagoa, seguruagoa eta bizigarriagoa izatea.

Guk eskainiko dugun produktua buia bat izango da, baina beste buia batzuk ez bezala, buia honek detektatu ditzake hondakin kaltegarriak itsas-faunarentzat, eta ez bakarrik hori, detektatuko eta harrapatuko ditu gero seinale bat bidaltzen aplikazio baten bidez pertsonak jasotzeko.

Lehiakideengandik nabarmen bereizten gara gure produktuak duen diseinu eraginkorrari esker; gure sistemak hondakinak modu azkarrago eta zehatzagoan biltzen ditu, eta horrek emaitza hobeak ematen ditu. Horrez gain, prezioa ahalik eta merkeen eskaintzea da gure helburua, produktua erakargarriagoa eta eskuragarria izan dadin.

Bezeroari erosketa osteko zerbitzua ere eskainiko diegu, fidagarritasuna eta konfiantza handitzeko.

Proiektu hau martxan jartzeko, buia kopuru handia ekoiztea izango da funtsezkoa, gure sistema modu zabal eta eraginkorrean ezartzeko.



